

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2045

*271/2020 EBAZPENA, martxoaren 10ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Santa Marina Ospitaleko zuzendari mediku lanpostutik kentzen baita Alejandra Gil Molet andrea, berak hala eskatuta.*

Osakidetzako zuzendari nagusiaren uztailaren 13ko 980/2017 Ebazpenaren bidez (uztailaren 26ko EHAAn), Santa Marina Ospitaleko zuzendari mediku izendatu zuten Alejandra Gil Molet andrea.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusiak hauxe,

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Alejandra Gil Molet andrea Santa Marina Ospitaleko zuzendari mediku lanpostutik kentzea, berak hala eskatuta, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2020ko martxoaren 22ko lanaldia bukatzean izango du indarra.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Santa Marina Ospitaleari Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 10a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
JUAN LUIS DIEGO CASALS.